



16. jarduera: Zelulatik organismora. Hiztegiaren erabilera.

Izena: Data:

INFORMAZIO ITURRIEN ERABILERA: "Hiztegiak eta hiztegi entziklopedikoak"

Hiztegietara jo aurretik, liburuko 17. orrialdeko testuari gainbegiratua eman, eta izenburua eta irudiak interpretatuz egitekoa duzu honako ariketa hau.

1. Adierazi egia ala gezurra den, beti ere irudietan emandako informazioan oinarrituta.

- a. EGI./GEZ. Muskulu-ehunak ehun epitelialez eta nerbio-ehunez osatuta daude.
- b. EGI./GEZ. Askotariko ehunak daude.
- c. EGI./GEZ. Ehunak zelulez osatuta daude.
- d. EGI./GEZ. Zelulek organismora iristeko
- e. EGI./GEZ. Zelulak organismoaren oinarrizko osagaiak dira.
- f. EGI./GEZ. Gizakien organismoaren osaketak eta landare-organismoenak badituzte antzekotasun batzuk.
- g. EGI./GEZ. Landare-zelula mota desberdinak daude: landare-ehunak, landare-organoak eta landare-organismoak.

Hurrengo galderak, berriz, hiztegietako artikulua arretaz irakurri eta aztertu ondoren erantzun beharko dituzu.

- a) **1 ehun. iz. 1.** Hariak edo zuntzak paralelo jarritako beste batzuen gainetik eta azpitik txandaka pasaraziz osatzen den materiala. Artilezko ehuna. **2.** (Biol.) Morfologia eta funtzio berbera duen zelula-multzoa. *Muskulu-ehuna. Ehun adiposoa.*
- b) **2 ehun. zenbtz. zehazt. 1.** Hamar bider hamar. ♦ *iz. 2.* Delako kopurua adierazten duen zenbakia; delako zenbakia ezaugarri duen gauza edo pertsona.
- c) **ehuna. banatz.** Bakoitzari ehun, bakoitzak ehun.

2. Zein hiztegi-artikulutan azaltzen da *ehun* hitzak "Zelulatik organismora" testuan duen esanahia?

.....



3. Hiztegi-artikulu horietako zein hitz-konposatuk adierazten du *ehun* hitzak aipatutako testuan duen esanahia?

.....

- a) **aparatu.** *iz.* **1.** Helburu jakin baterako tresna mekaniko, elektriko edo elektronikoa, piezen aklopamenduz eratua. **2.** (Anat.) Funtzio bera betetzeko elkartzen dituen organo-multzoa. *Digestio-aparatua, arnas-aparatua, zirkulazio-aparatua, lokomozio-aparatua, ugal-aparatua, gernu-aparatua.* **3.** (Pol.) Alderdi politiko batean, goi-karguek osatzen duten egitura (bereziki erabaki-ahalmen handikoa denean erabiltzen da).

4. Hiztegi-artikulu horretako zein adiera dagokio aparatu hitzari "Zelulatik organismora" testuan?

.....

- a) **1 organo.** *iz.* 1. Estatuan, erakunde, enpresa, etab.etan funtzio jakin batzuk esleiturik dituen instituzioa. *Enpresa honetako organo nagusia batzorde zuzentzailea da.* **2.** (Biol.) Organismo batean, funtzio berezi bat betetzeko moldatuta dagoen zati edo egitura. *Entzumen-organoa.*
- b) **2 organo.** *iz.* (Mus.) Haize-instrumentu teklatuduna, elizetan erabili ohi dena. Hauspoetan konprimitutako aireak tutuetatik irtetea hauei bibrarazi eta soinua sortzen du. *Organo-jolea.*
- c) **organismo.** *iz.* 1. Izaki biziduna. 2. Izaki biziduna osatzen duten organoen multzoa. 3. Erakundea. *Administrazioaren organismoa da.*

5. Bila ezazu goiko hiztegi-artikuluetan, eta idatzi, organo hitzari aipatutako testuan dagokion definizioa?

.....

.....



6. Zein hitzekin ordezkatu ditzakezu honako esaldi honetan azpimarratutako hitzak?

Badira mikroskopiorekin bakarrik ikus daitezkeen izaki bizidunak.

.....

7. Zein hitz agertuko da lehenago hiztegi batean: organo ala organismo?

.....

a) **zelula.** iz. **1.** (Biol.) Izaki bizidunen oinarritzko unitatea, nukleo, zitoplasma eta kanpo-mintzaz osatua. **2.** (Elektron.) Argi-energia energia elektriko bihurtzen duten hainbat gailuri ematen zaien izena.

b) **zelula.** iz. **1.** BIOL. Bizia duen elementua, izaki bizidunen unitate fisiologiko, genetiko eta estrukturala dena. **2.** METEOROL. Atmosferan unitate baten gisa jokatzen duen eta zirkulazio-sistema batean parte hartzen duen aire-masa. **3.** FIS. Argi-energia energia elektriko bihurtzen duten hainbat gailuri ematen zaien izena.

ENTZ. Funtsean bi zelula-mota bereiz daitezke: prokariotoak eta eukariotoak. Prokariotoak batik bat proteinaz osatutako zitoplasmaz, honen baitan dagoen material genetikoaz eta guztia inguratzen duen zelula-mintzaz osatuta daude. Zelula gauetan, metabolismoarekin zerikusia duten substantziak mintzari lotuta daude eta zatiketa zelularraren bidezko ugalketa asexuala dute. Eukariotoek, aldiz, (...)

8. Goiko bi artikuluko horietatik, zein dagokio hiztegi arrunt edo orokor bati, eta zein hiztegi entziklopediko bati?

- Hiztegi orokorra:

- Hiztegi entziklopedikoa:



9. Bi artikuluko horietako zein adiera dira baliokideak? Lotu itzazu.

Hiztegiko 1. adiera

Hiztegi entziklopedikoko 1. adiera

Hiztegiko 2. adiera

Hiztegi entziklopedikoko 2. adiera

Hiztegi entziklopedikoko 3. adiera

10. Zein informazio iturriri dagokio honako definizio hau?

"Hitzaren definizioa ezezik, hitz horrek adierazten duenari buruz oinarriko informazioa (historikoa, zientifikoa, etab.) dakarrena, eta izen bereziak (leku-, pertsona- etab.)-etako izenak) ere sarrera direnekoa."

.....